

ZEBERION HERRI MAILAN ETA UDAL BARRUAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANAK

KOKAPENA

Ondorengo dokumentuan 2013-2016 tartean Zeberion euskara arloko plangintza osatzeko oinarriak jaso dira. Oinarria diogu, oraindik osatzeke dagoen dokumentua baita. Osatzeke bertan jasotako edukiari ekarpenak egitearen ikuspegitik eta osatzeke bertan jaso gabeko edukiari, oraindik, eduki berria gehitu behar zaiolako urteko plana osatzeko.

Esku artean duzuen dokumentu hau planaren lehen atala da, egoeraren azterketarako aintzat hartu beharreko oinarriko faktoreak biltzen dituena. Egutegiari jarraiki, ondorengo faseetan lau urteko perspektiban helburuak proposatuko dira, helburu horiek lortzeko gainditu beharreko erronkak, eta parte hartuko duten eragileak zeintzuk izango diren zehazteaz gain oinarrian egin beharreko lana ere adieraziko da. Azkenik, dokumentua 2013ko kudeaketa planarekin borobilduko dugu, eta bertan urteko helburuak, ekimenak eta mugarri nagusiak bildu beharko dira.

ABIAPUNTUA: DIAGNOSTIKOA

Ariketa honen asmoa ez da izan euskararen egoeraren inguruko diagnostiko exhaustiboa egitea. Datozen urteetako Zeberioko Udalerrian garatuko den euskara arloko estrategia zehazteko egun aintzat hartu beharreko faktore nagusiak identifikatzea, baizik.

Horretarako, oinarriko AMIA matrize bat osatu da. Jarraian doakizue:

AHULGUNEAK (barne- faktoreek eragindakoak)	MEHATXUAK (kanpo- faktoreek eragindakoak)
<ul style="list-style-type: none">• Tabernetan, komertzioetan, enpresetan... ez da euskararik erabiltzen• Zeberion gaztelaniaz ondo bizi daiteke, orohar ez dago euskararen beharizanik• Aurrekoa euskalduna izanda ere, hizkuntza-ohiturak aldatzea izugarri kostatzen da• Ezezagunen aurrean lehenengo berba gaztelaniaz egiten dugu• Kanean, gurasoen artean, giro erdalduna da nagusi• Militantzia arloan lasaitu egin gara, hilda dago• Dakitenek ez dute erabiltzen. Euskaldunon artean erdaldun bakarra egonda ere, erdarara jotzen da erraztasun handiz• Hizkuntzaren inguruko kontzientziazio falta. Giro hotza euskaraz bizitzearen alde hainbat kolektibotan: guraso, gazte, ume...• Gaztelania ez da arazotzat jotzen. Zeberio bezalako herri euskaldun baten euskarak arriskurik ez duenaren ikuspuntua nagusitzen da• Garrantzitsutzat jotzen ditugun gauzak gaztelaniaz egiteko ohitura dugu• Ez dugu jakin, hizkuntza ikuspegitik, etorriberriak integratzen• Udalean ez dago euskara lehenetsita. Bertatik ateratzen diren iragarkiak elebidunak dira eta ahozkoan harremanetan erdara ere entzuten da• Elebitasunaren diskurtsoak jan dugu eta horrek atzerapausuak emanarazi dizkigu• Hizkuntza eskubideen inguruan kontzientziazio falta• Ume guztiek D ereduan ikasi arren hauetako ehuneko handi batek ez du euskal girorik etxean. Zeberio	<ul style="list-style-type: none">• Euskara lehenetsi ahala erdaltzaleen erreakzioak etor daitezke: errespetu falta, aurpegi txarrak...• Komunikabide erdaldunen nagusitasuna (kontsumitzeko garaian zein kopuruan)• Hizkuntza politizatzea honek dituen ondorioekin• Gehienbat kontsumitzen diren komunikabide horiek duten hizkuntza-politika, zabaltzen dituzten hizkuntza eremuko diskurtsoak• Alboan udalerrri handiagoa eta erdaldunagooa• Globalizazioa (edo anglobalizazioa, hau da, ingelesaren mehatxua)

<p>biztanleen %38,4ak gaztelaniaz baino ez du hitz egiten etxean eta %20ak gaztelania eta euskara erabiltzen du familian</p> <ul style="list-style-type: none"> • Guraso euskaldunek umeei ez diete beti euskara transmititzen. Etxean euskaldunen + ia-euskaldunen %27,85ek batez ere gaztelaniaz egiten du • Ahozko transmisioa gero eta urriagoa da: horrek ekarriko du bertoko esaera asko galtzea, besteak beste • Umeen artean eskolatik kanpo gaztelania da nagusi. Umeak jolasean euskaraz hasten dira baina bat-batean erdarara jotzen dute • Baliabide eskasagoak daude euskaraz hainbat alorretan: literaturan, zineman... • Umeei euskara erabili ezean geroago hitz egiteko erraztasuna galtzen dute, eta hori da gaztelaniaz egitearen arrazoietakoa bat (beste batzuen artean) 	
<p>INDARGUNEAK (barne-faktoreek eragindakoak)</p>	<p>AUKERAK (kanpo-faktoreek eragindakoak)</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Zeberion euskara bizirik dago (arnasgunea da) • Jende berri euskalduna etorri da • Etxean euskaldunen + ia euskaldunen %72,13k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du • Herri mailan ezagutza nahiko altua da: euskaldunak %73,44, ia euskaldunak %16,54, erdaldunak %10,01 • Eskualde mailan dugun komunikabide bakarra euskara hutsean da • Euskaraz ulertzen duen herritar nahikotxo dago, euskarazko elebitasuna praktikan jartzea ahalbidetuko luketenak (euskaldunak + ia-euskaldunak: %89,98) • Lehen hezkuntzan D eredia baino ez dago • Ikasle guztiak D eredian daude • Hezkuntza eta euskara uztarturik daude • Herriko eskola euskalduna da: euskara lehenetsita dago eta asko erabiltzen da • Ume eta gazte guztiek badakite euskaraz • Herrian urtean zehar antolatzen diren ekintzak euskaraz izaten dira • Lehenetsita dago euskara webgunean • Osoko bilkurak euskaraz izaten dira • Udaletxeko langile gehienak euskaldunak dira • Udalarekin harremanak euskara hutsean izateko aukera dago, salbuespenak salbuespen • Badago euskara ikastearen beharrezana sentitzen duen herritar multzo bat • Euskara debalde ikasteko aukera dago • Euskara ikasteko ikastaroak antolatzen dira • Erdaldunek euskara ikastearen nahia / beharrezana sentitzen dute: 2011/2012 ikasturtean euskara ikastaroetan 27 lagunek eman dute (2006 urteko datuen arabera herriko erdaldunen %25,4a da) 	<ul style="list-style-type: none"> • Dauden teorizazio lanak praktikan artzeko aukera dago: Hizkuntza ekologiaren diskurtsoa, TELP tailerrak... • Komunikabide euskaldunak daude, kontsumitu ahal direnak (irratiak, aldizkariak...) • Sarean euskaraz artzeko aukera dago, eta hori erabili beharra dago • Udaletik euskara lehenetsiko duen hizkuntza politika batek orain arte herritar "pasibo" izan direnak berarekin arrasta ditzake • Herritar multzo batek badu euskaraz bizitzeko ilusioa/gogoa • Egun ospetsu euskaldun ugari dago (kirolariak, aktoreak...) erakarmena dutenak eta erabil daitezkeenak herritarrek motibatuzko • Herriko taldeen artean mugimendu handia sortzen ari da: gazteak, mendi taldea, batzordeak... • Herriko eragileek (erakundeek, elkarteek, alderdiek...) indarra dute Zeberion eta euskara bultzatzeko prest daude. Guztiekin aliantza-estrategikoak landu litezke • Krisiak eraginkortasun-premia sortzen du, eta hori eremu batzutan erabilgarri izan liteke euskara lehenesteko • Alboan eskualde euskalduna (Arratia) • Egoera politikoa lagungarria izan daiteke • Zeberioak UEMAn sartzeko baldintzak betetzen ditu, eta mankomunitatean sartuta hizkuntza politika aitzindariak ezartzeko aukera dago • Globalizazioaren aurkako kontzientziaren eraginez geurea goraitu

Eginiko azterketak, ikusten denez, faktore ugari ondorioztatu ditu. Faktore horiek guztiek, ordea, ez dute garrantzi berdina aurrera begira abiatu beharreko estrategia definitzeko garaian. Horien guztien artetik, jarraian doazkizuen, alderdiak edo ondorioak nabarmendu dira:

- Herrian euskaldunak gehiago nagusia izan arren egunerokoan gaztelania erabiltzen dutenak asko dira, kasu batzutan baita euren artean ere. Datozen urteotarako plan honek definitu duen estrategian euskararen **erabilera handitzeak** garrantzia berezia hartzen du. Horretarako, euskaldunon hizkuntza eskubideen

aldeko kontzientziazio kanpainak burutzea ezinbestekotzat jotzen da, horren bidez **euskara lehenetsi** eta erdaldunei **euskararen beharrezana sentiarazteko**.

- Adinari dagokionez, gakotzat jotzen da **umeengan** eta hauen **gurasoengan** eragitea. Bestalde, aliantzei dagokienez, **herriko eragileekin** (erakunde, elkarte, alderdi...) **bat eginda** jokatzeko.
- Euskara lehenetsi ahala erdaldunen balizko **aurkako erreakzioa itzali** eta orain arteko **euskaldun "pasiboak" geureganatu** beharko ditugu. Horretarako, UEMAko udalerriek duten esperientziaz baliatzeaz gain (komunikazio plana, espedienteak, hizkuntza-politika, balizko arazoak konpontzeko era...) egindako teorizazio lanak herritarren artean zabaltzea (euskara plana bera, hizkuntza ekologia, euskaldunentzako TELP tailerrak) aukera egokia izan liteke

Ideia horiek, beraz, aurrera begira ezarri beharreko helburuak zehazteko lurzorua ezartzen digute.

NORABIDEA: 4 URTE BARRURAKO ERRONKAK/HELBURUAK

Ariketaren jomuga urteko plana osatzea den arren, perspektiba luzeagoa begi bistan izatea ezinbestekoa delakoan gaude. Horretarako, agintaldiko perspektiba jarri dugu oinarri gisa. Lau urte hauen ondoren non, zein egoeratan, egon nahi dugun definitzen duten helburuak edo erronkak identifikatu dira atal honetan.

Helburu hauek definitzeko garaian plano eta maila desberdinak hartu nahi ditugu aintzat. Horrela, helburu nagusitik hasi eta esparruz esparruko helburuak zehazteraino heldu gara. Hain zuzen, helburu estrategikoak egikaritzeko garatu behar diren esparruz esparruko helburuak eta helburuak lortzeko zehar-lerroetarako jarriko ditugun erronkak zeintzuk diren zehaztu dugu.

Helburu nagusia

Abiapuntua, helburu nagusian kokatu dugu. Berau zehazteko diagnosian etengabe errepikatu den hutsune estrategikoa, gaintitzea gauzagarria dena, aintzat hartzen saiatu gara. Helburu nagusi honetan helburu estrategikoetan zabalago adieraziko dena laburbiltzen da. Hori horrela, honako hau da Zeberioko Udalerriak euskara sustatzeari begira datozen lau urteotan lortu nahi duen helburu nagusia:

-Euskaldunon eta euskaldun pasiboen artean euskararen erabilera handitzea, eta hori lortu ahal izateko euskarri egokiak abian jartzea

Helburu estrategikoak

Hizkuntza plangintza berria hiru helburu estrategikoren inguruan antolatzen da. Bat, ezinbestez, aurreko puntuan zehaztutako helburu nagusia da eta gainontzeko biek helburuen atala osatu egiten dute. Beraz, euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikaduraren inguruko diagnosiaren datu azpimarragarrienak batu ostean, hona hemen atal hauen inguruko helburuak zeintzuk diren:

-Euskararen jabekuntza: Euskararen erabilera handitzea etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatzea familia kideen arteko hizkuntza izan dadin

-Euskararen erabilera: Euskaldunon eta euskaldun pasiboen artean euskararen erabilera handitzea, eta hori lortu ahal izateko euskarri egokiak abian jartzea

-Euskararen elikadura: Teknologia berrietan (facebook, twitter...) euskararen erabilera handitzea

Helburu estrategikotzat jotzen diren jabekuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haiek elikatzen dituzten beste jarduera motak ere, hizkuntza plangintza integral batek kontuan izan behar dituenak. Horien artean daude euskararen aldeko **motibazioa** eta euskararen **zabalkundea**. Neurri batean zein bestean hizkuntzaren erabilerari eragiten dieten faktore hauek plan honen ekintza zehatzen atalean garatuko dira.

Esparruz esparruko erronkak

Hiru helburu estrategikoen barruan esparru desberdinak jorratu ditugu. Esparru bakoitzean helburuak lortzeko gainditu behar ditugun erronkak zerrendatu ditugu, beti ere garrantziaren arabera lehenetsiz.

Bestalde, aintzat hartu beharko dugu plano honetan zehazten diren erronkek aurrez ezarritako helburuak erdiesteko bidea eman behar digutela. Hortaz, aurrez zehaztutako helburuekiko erabateko koherentzia izan dezaten ahalegindu gara.

Hortaz, AMIA taula eta orain arte zerrendatutako helburuak oinarritzat hartuta, ondorengo taulan zehaztu ditugu esparruz esparru lau urte barrurako ditugun erronkak:

HELBURU ESTRATEGIK.	ESPARRUAK	ERRONKAK
Jabekuntza	-Familia bidezko transmisioa	-Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen -Gurasogaien hizkuntza-ohituraren aldaketarako erraztasunak ematea -Familia bidezko transmisioa sendotu dezaketzen hizkuntza-ohitura eredugarriak identifikatu eta sustatzea -Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza-jokabideak lantzea
	-Irakaskuntza	-Eskolan bertan zein eskolaz kanpo ere gurasoek eta umeez euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea -Gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea -Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz
	-Euskalduntze/alfabetatzea	-Euskararik ez dakitenek ikastearen beharrezan nabaritzea -la euskaldunak direnaren artean euskararen erabilera sustatzea -Etorriberriak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)
Erabilera	-Administrazioa	-Euskararen lehenetsiko duen erabilera plana betetzea -Euskaraz jarduteko gai diren herrilangileak euskara erabiltzeko bideak erraztea eta sustatzea -Herritarrek administrazioekiko harremanetan euskara era naturalean erabil dezaten sustatzea eta horri begirako komunikazio ekintzak

		<p>antolatzea</p> <p>-Osasun, justizia eta gizarte zerbitzuetan euskararen erabilera lehenestea</p> <p>-Udalaz gaindiko administrazioek herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea</p>
	-Gune euskaldunenak (euskararen arnasmuneak)	<p>-Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera-eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezleak, gurasoak, ikasleak) eta herri-administrazioek parte har dezaten</p> <p>-Euskararen arnasmuneak herrian zehar hedatzen joatea</p> <p>-Arnasmuneek duten garrantziaren inguruko lan pedagogikoa egitea herritarren artean</p>
	-Arlo sozioekonomikoa	<p>-Arlo sozioekonomikoarentzako dirulaguntza lerroetan hizkuntza irizpideak txertatzea</p> <p>-Hizkuntza paisaia –ez bakarrik eskumen publikokoa, baizik eta baita ere merkataritza eta enpresa arloko-oro har euskaraz izateko neurriak hartzea</p> <p>-Merkataritza kokaguneetan / ostalaritzan bezero euskaldunak euskarazko zerbitzua jaso ahal izateko neurriak hartzen joatea eta euskara erabiltzearen aldeko komunikazio ekintzak antolatzea</p> <p>-Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea</p>
	-Aisia eta kirola	<p>-Aisialdiko ekintzetan, kultur jardueretan eta erlijio jardueretan ohiko eskaintza euskarazkoa izatea bermatzea (haur, gazte, heldu zein adinekoei zuzendutakoak)</p> <p>-Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea</p> <p>-Gazteen artean euskararen irudia zehaztu, hobetu eta indartzea</p> <p>-Herriko eragileak, bakoitza bere eremuan, euskara era naturalean lehenestearen inguruan urratsak ematea</p>
Elikadura	-Liburugintza	<p>-Udal liburutegiaren euskarazko eskaintza herriratzea</p> <p>-Udal liburutegian irakurleen kluba antolatu eta sustatzea</p>
	-Kulturgintza	<p>-Herriko kultur eskaintzan (ekitaldiak, ikastaroak...) euskararen erabilera handitzea</p>
	-Publizitatea	<p>-Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala gutxienez euskaraz txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniatzko hedabideetan ere</p> <p>-Hedabide publikoek iragarleei euskaraz publizitatea egin dezaten informazioa, erraztasunak eta pizgarriak eman</p> <p>-Enpresa munduak alor honetan duen erantzukizun sozialaz kontzientziatzea</p>
	-Corpus plangintza eta euskararen kalitatea	<p>-Gazteen hizkerari arreta berezia eskaintzea, horretarako ekimen zehatzak abian jarri (erregistroen araberrako esamoldeak lantzeko egitasmoak, idazlan-lehiaketak, komiki-lehiaketak, sms lehiaketak, etab.)</p> <p>-Bertoko euskalkia zaindu, sustatu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkian bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz</p>

		-Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz
	-Hedabideak	-Tokiko euskarazko komunikabideen garapena sustatzea eta euskararen erabiltzeko hizkuntza irizpideak ezartzea udal komunikabideetan
	-Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak	-Sarean informazio gune iraunkorra abiaraztea eta eguneratuta mantentzea -Udalan informatikako tresnak euskaraz konfiguratzeko eta horiek erabiltzeko moduan jartzea -Herriko gazteen artean teknologia berrietan (Facebook, twitter...) euskararen erabilera handitzea

Eragileak

Ondoren, helburu horiek gauzatzen bidean, zeresan berezia izan dezaketen eragile nagusiak (erakundeak, elkarteak...) zeintzuk diren zehaztuko dugu, jomuga horietara heltzeko bakoitzak jokatu beharreko funtzioa edota lantzen duen esparrua adieraziz.

HERRIKO ERAGILEAK	LANTZEN DUTEN ESPARRUA
Zeberrioko abeltzainak	Abeltzantza
Austarri kultur taldea	Kultura
Austarri mendi taldea	Mendia
Ehiza elkarteak	Ehiza
Guraso elkarteak	Hezkuntza
Jubilatuen elkarteak	Hirugarren adineko gaiak
Zeberrioko eskola	Hezkuntza
Zeberrioko gazteak	Gazteria
Zeberrioko taberna eta dendak	Merkataritza

EBALUAZIOA

Ebaluazio jarraia egitearen ardura euskara batzordearena izango da. Han egingo da ebaluazio kualitatiboa eta zehaztu egingo da alde batetik, aurreikusi diren ekintzetatik zeintzuk burutu diren eta, bestetik, urteko erronkak gainditzeko balio izan duten ala ez. Ezezkoa balitz zergatia ere adierazten ahaleginduko gara, hurrengo urtean huts bera gerta ez dadin. Ebaluazio kuantitatiboa (inkestak bidez datuak jasoz), 2014 urteko eta 2016ko azken hiruhilekoetan egitea aurreikusten da.

Neurtu(ko) dena	Abiapuntua	2014	2016
Ezagutza: euskaldunak			
Ezagutza: ia euskaldunak			
Ezagutza: erdaldunak			
Etxeko erabilera: euskaraz			
Etxeko erabilera: euskaraz gehiago			
Etxeko erabilera: berdin			

Etxeko erabilera: erderaz gehiago			
Etxeko erabilera: erderaz			
Erabilera administrazioan: udalean euskaraz			
Erabilera administrazioan: udalean erdaraz			
Erabilera administrazioan: gizarte zerbitzuetan euskaraz			
Erabilera administrazioan: gizarte zerbitzuetan erdaraz			
Erabilera administrazioan: bake epaitegian euskaraz			
Erabilera administrazioan: bake epaitegian erdaraz			
Erabilera administrazioan: kontsultan euskaraz			
Erabilera administrazioan: kontsultan erdaraz			
Ezagutza merkataritzan: euskaldunak			
Erabilera merkataritzan: ia euskaldunak			
Erabilera merkataritzan: erdaldunak			
Erabilera merkataritzan euskaraz			
Erabilera merkataritzan erdaraz			
Enpresetan zerbitzua euskaraz			
Enpresetan zerbitzua erderaz			
Enpresetan lan euskaraz			
Enpresetan lan erderaz			
Euskaraz funtzionatzen duten elkarteak			
Erderaz funtzionatzen duten elkarteak			
Kale erabilera: euskaraz			
Kale erabilera: gaztelaniaz			
Kale erabilera: beste hizkuntza bat			